

**HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PROIEKTUAK  
IKASTETXEETAN**

Ikasturte berrian, 1997/8an, *Euskara Normaltzeko* bereziki bideratutako proiektuak burutuko dira Komunitate Autonomoko zenbait ikastetxetan. 1997ko maiatzaren 8ko buletineko deialdiari erantzunez, 250 ikastetxe inguruk eman dute izena proiektu horietan murgildurik parte hartzeko. Gehienak onartuak izango dira. Onartzerakoan, euskararen erabilera bultzatzeko aurreko urteetan egindako ahaleginak hartuko dira kontuan.

**Parte hartzeko oinarrizko baldintzak honako hauek dira:**

\* Ikastetxeak euskara normaltzen ahalegintzeko nahia eta asmoa argi agertu behar du.

\* Ikastetxeak euskarazko klase-emankizunez gain, eskola-gintzan diharduten eragile desberdinen arteko jarduna eta harreman-bideak euskalduntzeari bereziki aitortuko dizkio.

\* Ikastetxea euskarazko jarduna indartzeko plan honetara bere gogoz eta bere baitarik bilduko da, bere baliabideek dezakenetik abiatuz egin gogo duenera zuzenduz..

Puntu hauetako bakoitza zabal adierazirik agertzen da aipaturiko deialdian. Administrazioaren konpromezua, dirulagun-

tza bidetik baino gehiago dator bestelako laguntzak eskaintzetik, besteak beste: *Abolku eta Balibideetako Euskara Normalkuntzarako Teknikarien laguntza eta ikasturteko une jakin batzuetan ikastaro gisako prestakuntza eskaintzen arduratuko delarik.*

Era berean, *Eskortatzako Irakasle Eskola, Unibertsitatea, UEU eta EKB* erakundeen aholkularitza eta laguntza izango du.

Bestetik, berriz, Hezkuntza Sailak, ikastetxe hauetara bidaltzen duen material guztia *euskarazkoa* izango da; beste era baten ohar eta komunikazioak ere berdin, *euskaraz* izango dira.

#### **Ikastetxearen betebeharra:**

a) 1997ko ekainaren 16a baino lehen parte hartzeko gogoia eta proiektuaren nondik norakoa aurkeztu, ikastetxeko gehien-goaren onarpenarekin **Hizkuntz Normalkuntzarako Proiektuak (HNP)** eskatzen duena betetzeko benetako asmoa adieraziz.

Hizkuntz Normalkuntzarako proiektua egitean, lehentasuneko irizpideak markatuko dira, gauzatzeko dauden aukerak, oinarri nagusiak eta ikastetxea zer konpromezutan sartzeko prest dagoen argi adieraziz.

b) *Euskararen erabilpena bultzatzeko* **Batzordea osatu:**

Batzorde honen ardura, ikastetxean euskararen erabilpena indartu eta normaltea da, eta Hizkuntz Normalkuntza Proiektua (HNP) burutu eta honen jarraipena egitea.

c) **Hizkuntz Normalkuntzako Arduradun Teknikoa** (HNAT) izendatzea 1997-8ko ikasturterako, eta beraren dedikazio eta ardurak lotzea, ordu liberazio jakina duela (astean 3 edo 6 ordu inguru), proiektuaren kudeaketarako eta dinamizatze lanetarako, guneetako zein eskualdeetako Pedagogi Aholkularitzako (PAT) **Euskara Teknikariek**in bilerak eta aholkularitza bideratzeko.

Hezkuntzak hizkuntza normaltzeko tresna izan behar du; ikastetxeak, ohiko irakas-hizkuntza eta gainerako jardunetarako, euskararen erabilpen sozialak bultzatzeko baliabide bihurtu behar du.

Historia labur bat eginez horrela ikusten zuen Eusko Jaurlaritzak hizkuntz ereduen (ABD) sorreratik bertatik.

Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak, Euskara Arauzkotezkoak, 17. atalean, Jaurlaritzak ikaslegoari buruz duen betebeharra adierazten du: "Nahitaezko ikastaldiak bukatzerakoan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko adina ezagutuko dituen segurantzza emateko xedezko neurriak hartu eta euskara giroa bermatuko du, barne nahiz kanpoko ekintzetan Administrazio-ko jardun eta agerietan euskara adierazpide normal eginez."

Lege honen garapena uztailaren 11ko 138/1983 Dekretuaren bidez egin zen. Bertan Hezkuntz eta Kultura Sailak beharrezko neurriak hartuko zituela eskola giroan euskararen erabilpena bermatzeko, klase barruan eta klasez kanpoko ekintzetan ohizko adierazpen bihurtuz, esaten du.

Oraintsuago, otsailaren 1/1993 Legeak, Euskal Eskolari buruzkoak, beste hainbeste aitortzen du, eskolako eta eskolaz kanpoko ekintzetan eta eskolaren jarduera osoan euskararen erabilera ahalbideratzeko xedez.

Beraz, aspalditik hartutako konpromezuan kokatuko genuke **Hizkuntz Normalkuntza Proiektuen** deialdia.

Oraín arte ere saio batzuk egin dira **NOLEGA** (Normalkuntza Legearen Garapena) Programen bidez. Programek, egokiak izanik ere, ez dute izan Proiektu berri honek eskatzen duen sistematizaziorik. Nahi zuten irakasle eta ikastetxeek bideratzen zituzten. Gehienetan ikastetxeko proiektutik kanpo irakasle konkretu batzuen nahiaren arabera izan ohi ziren.

Hori dela eta, badira programa horietan ia inoiz parterik hartu ez duten ikastetxeak ere. Normalean, euskararen kezka

duten irakasleek murgildu izan dira, beste gehienek NOLEGA denik ere ez dakitelarik.

NOLEGako deialdiek, aurrerantzean ere jarraituko dute, eta ikastetxe bakoitzak ikusi beharko du nola erabili Hizkuntz Normalkuntza helburuetarako.

Proiektu berri honetan sartu direnek eta ez direnek ere, NOLEGako programa bakoitza zein alderdiren bat lantzeko erabili behar dena aztertu eta ahalik eta programa gehienetan parte hartu beharko dute, normalkuntzako guneak zabaltzen joan nahi badute behintzat.

### **Ikastetxeko Normalkuntza proiektuan sartzean zenbaitek planteiatzen dituzten lehentasunak:**

\* Organigraman normalizaziorako guneak zabaltzea edo optimizatzea.

\* Irakasleen hizkuntz erabilera hobetzen saiatzea.

\* Hizkuntz normalizazioaren inguruan irakasleen gogoeta eta ahalegina bultzatzea.

\* Irakasleen hizkuntz gaitasuna hobetzeko saioak.

\* Gurasoekiko harremanei, euskarari dagokionean, etekin handiagoa ateratzeko saioak.

\* Eskola ordur kanpoko guneek euskararako duten garrantzia.

\* Ikastetxearen ingurunean, euskara bultzatzeko eragile izatea.

\* Ikastetxetik kanpoko harremanetan eragile, euskara komunikazio bide bihurtuz, erakunde hornitzaile izatea.

Lehentasun batzuetatik hasi arren, badira komunikazio esparru guztiak aztertu eta proiektuan euskaraz bideratzeko programatu dituztenak ere. Hona hemen Barakaldoko ikastetxe publiko baten adibidea. Ereduak baino aipatzen ez badituzte ere, planifikazioaren alderdi guztiak sartzen dituzte, burutzeko moduak eta ahaztu gabe.

EUSKARAZ BIDERATZEKO ONARTU DITUZTEN ESPARRUAK:

<p>IKASTEIXEKO HARREMANAK                  .Irakasle-irakasleak                  .Irakasle-ikasleak:                  -gelan                  -jolasean                  -jantokian                  .Irakasle-gurasoak                  .Guraso-gurasoak                  .Begirale-irakasleak                  .Irakasle-atezainak                  .Bestelako zerbitzu batzuk:                  -sukaldariak,                  -garbitzaileak...</p>	<p>ARLO ADMINISTRATIBOA                  Ikastetxea-administrazioak:                  .Udalaritza                  .Udala/zerbitzuak (igerileku...)                  .PAT/COP (Pedagogi Aholku eta Baliabideekin)                  .Hornitzaileak: fakturak, oharrak, deiak...                  .Ikastetxea/osasun zerbitzuak                  .Sindikatuak                  .Euskalbegiak                  .Herriko euskara elkarteak                  .Kultur elkarteak                  .Pasabideetako kateak                  .Argitaletxeak                  .Tecnologia berrak</p>	<p>ARLO PEDAGOGIKOA                  .Ikastetzez kanpoko ekintzak: gurasoek zein ikastetxeak antolatutak.                  .Ikasturteko euskaruneak zein kanpuneak.                  .Haur hezkuntzako ume euskaldunak batu.                  .Gelatik kanpoko bisitak.                  .Euskararen aldeko jarraitzaileak lortzeko bideak egin: eta gelako programazioan txertatu</p>	<p>BILKURAK                  .Klausek                  .Ziklo bilerak                  .Bilera iraunkorrak                  .Aktak                  .Informak...</p>
---	--	--	--

Ikastetxeko proiektua egiteko orduan eta normalkuntza lortzeko lehentasunak markatzean, **Sanchez Carrionek** dioen antzera jokatzera jo beharko genuke:

*Gizarteko funtzioak ikastetxean eta ikastetxearenak gizartean sarturik.*

Ikasturte berrian sartuta gaudenez, lehendik zeuden NOLEGA programen nondik norakoak, gainera bada ere, aipatzea ongi legokeela uste dut, eta hori egiten saiatuko naiz. Helburu eta beste zehaztapen gehiago nahi izanez gero, **Pedagogi Berrikuntzako Zuzendaritzak 1997/8ko NOLEGA argitaratu duen AURKEZPEN TXOSTEN EDO LIBURUXKAN** datoz.

PROGRAMAREN IZENA	ESKARIA EGITEKO EPEA	NORENTZAT
<i>HIZKUNTZ NORMALKUNTZAKO PROIEKTUAK (1998/99rako)</i>	Ekainaren 4rako	ikastetxeentzat

**DIRULAGUNTZAK: DEIALDIAK**

<i>ANIZKERRIGINTZA</i>	1997ko urriaren 10erako	ikastetxeentzat
<i>BERTSO-LANKETA</i>	1997ko urriaren 10erako	ikastetxeentzat
<i>IKE (IKASGELAZ KANPOKO EKINTZAK)</i>	1997ko urriaren 10erako	ikastetxeentzat
<i>EGE (EUSKAL GIROTZE EGONALDIAK)</i>	1997ko urriaren 10erako	ikastetxeentzat
<i>IKABIL (IKASTETXEEN BINAKAKO LOTURAK)</i>	Zerrendan sartzeko eskaria, 1998ko maiatzaren 5erako eta eskabide orria beteta 1998ko ekainaren 15erako	ikastetxeentzat

**HITZARMEN BIDEZKO ESKAINTZAK**

<i>IDAZLEAK IKASTETXEAN EIE (Euskal Idazleon Elkartea)</i>	1997ko urriaren 3rako eskari orria	ikastetxeentzat
<i>EUSKARA ZINE ARETOETAN TINKO Euskara Elkartea</i>	1997-98rako, 1997ko irailean deialdia	ikastetxeentzat

**PRESTAKUNTZA IKASTAROAK: HIZKUNTZA NORMALKUNTZA IKASTARO MINTEGIAK: EUSKARAZ IRAKAS-TEKO GAITASUNA SENDOTZEKOAK (R-100 eta R-200)****R-100: Hilabeteko ikastaro trinkoa, 76 postu****R-200: Txanda osoko ikastaro trinkoa, 28 postu**

EUSKARAREN ERABILERA PROGRAMETARAKO PRESTAKUNTZA BEREZIAK		
SAKONTZE IKASTAROA	Arduraduna: Irale	Euskara titulua: 1997-98an eskuratuak
ALFABETATZE TEKNIKOAK	Arduraduna: Irale	Euskara Titulua 1997-98an eskuratu dutenentzat.
OINARRIZKO ANTZERKI IKASTAROA	Ordu kopurua: 50	Eskola Antzerkigintzan dihardutenentzat edo 1997-98an hasteko asmoa dutenentzat.
SAKONTZEKO ANTZERKI IKASTAROA	Ordu kopurua: 50	Eskola Antzerkigintzan diharduten edo hasiko direnentzat
DEKORATUA ESKOLA ANTZERKIAN	Ordu kopurua: 32	Eskola Antzerkigintzan diharduten edo hasiko direnentzat
KARAKTERIZAZIOA ESKOLA ANTZERKIAN	Ordu kopurua: 32	Eskola antzekigintzan diharduten edo hasiko diren irakasleentzat
OINARRIZKO BERTSO LANKETA IKASTAROA	Ordu kopurua: 50	Eskola Bertso-lanketan dihardutenentzat edo hasiko diren irakasleentzat
SAKONTZEKO BERTSO LANKETA IKASTAROA	Ordu kopurua: 50	Eskola Bertso-lanketan diharduten edo hasiko diren irakasleentzat
POESIA, AHOZKOITASUNA ETA IPUIN KONTALARITZA	Ordu kopurua: 16	Abelino Barriola deklamazio leheiaketan parte hartu duten edo hartuko duten irakasleentzat

**EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK**

GIROTZE BARNETEGIAK	Eskaria 1998ko maiatzaren 22rako	Hizkuntz ereduaren arabera
---------------------	----------------------------------	----------------------------

BARNETEGIA	EREDUA	HEZKUNTZA MAILA	IRAKASMAILA
<i>ALKIZA</i>	B	LMH (lehen mailako hezkuntza)	3-4-5 mailak
<i>PLENTZIA</i>	B	LMH/DBH (lehen hezkuntza eta derrigorrezko Bigarren Hezkuntza)	L.Hko 6.maila eta DBHko 1-2 mailak
<i>GAZTELU</i>	A	LMH/DBH	3-4-6/ DBH 1-2
<i>SBGURA</i>	D	LMH	3-4-5
<i>ELGOIBAR</i>	D	LMH/DBH	6/ DBH 1-2

**EUSKARAREN KALITATEA: SARI-LEHIAKETAK**

<i>URRUZUNO</i> <i>Prosa eta poesia</i>	1998ko apirilaren 28rako eskaria egin behar da (Deialdia urtarilean edo otsailean egingo da)	IRAKASKUNTZA ERTAINETAKO IKASLEENTZAT: <b>B:</b> BBBko 1. eta 2 mailakoentzat LHko 1. gradua eta IEEko 1. zikloa <b>A:</b> BBBko 3. maila, UBI, LHko 2. gradua eta IEEko 2. zikloa
--	--	--

<i>ABELINO BARRIOLA</i> <i>DEKLAMAZIO SARIA</i>	1998ko apirilaren 24rako eskaria eginda	<b>A eta B ereduatan:</b> LMHko 5-6/DBHko 1-2. mailak <b>D ereduatan:</b> LMHko 3-4/DBHko 1-2. mailak
--	---	--

Goian aipaturiko zenbait programaren eragina, urria gertatzen da ikastexeak euskararen erabilpenerako irizpide bateraturik ez duenean, irakasle bakoitzak nahi duena edo ahal duena egiten duenean. Ikastetxearen izaera barruan sartzen ez bada, ikasleak euskalduntzeko kontzientziak, gehinetan, emaitza eskasak izan ohi ditu.

**Ikastetxeko Hizkuntza Normalkuntza Proiektua Garatzeko bide bezala erabiltzen badira, normalkuntza bidean emankorragoak bilakatuko dira, ikastetxe osoaren eskuartzea erantsirik.**

**Horretarako baldintzarik ez dagonean, ahal dena egin behar! eta zerbait egitea, ezer ez egitea baino hobea.**

Deialdi honen bidez eta bertan adierazten den bezala, Hizkuntza Normalkuntzako Programan sartutako ikastetxeek, euskararen erabilera eta kalitatea sustatzeko egiten dituzten edota egin ditzaketan ahaleginak Hezkuntza Sailaren bultzada eta babesia izango dute. Orain arte didaktikaren eta erabileraren bi arlo nagusi horietan emandako pausoetan aurrera egin, eta hurrengo urteetan hobekuntza nabariak egiteko premiak baztertu gabe, **Hezkuntza Komunitateko partaidea belduen arteko barreman-bizitzan eta bertatik kanporako produkzioan EUSKARAK duen lekua sendotu eta aberasteko urratsak eman beharra argi dagoela** aitortzen du Hezkuntza Sailak deialdi hau egitean.

1996-7ko ikasturtean, Hezkuntza Sailaren gonbidapena onartuz Autonomi elkarteko 20 Herri Ikastetxe eta 3 ikastetxe pribatu sartu ziren esperientzia honetan.

Esperientzia horietatik abiatuz, aurtun, 1997-98ko ikasturterako deialdi zabala egin izan da, arestian esan den bezala, erantzuna oso ona (250 ikastetxetik gora) izan delarik.

Bakoitzak bere erantzukizunak ditu honetan guztian. Ikastetxeek esandakoa betetzeari ekin behar dio. Hezkuntza Sailari, babesia eta laguntza eskaintzea dagokio, eta guri eskualdeetako PATetako zerbitzuetan euskararen arduradun garenol, ahalik eta, material, aholku, topaketak,... antolatuz, bidean nekatu gabe aurrera egin dezaten Ikastetxeko Euskara Normaltzeko eginkizun eder honetan laguntzarik handiena eskaintzea.

*Pilare Baraiazarra Txertudi*  
(Irakaslea)